

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2020ko ekainaren 26an aurkeztuko du

Artea ikasbide

Artea ikasbide

- Datak: ekainaren 26tik irailaren 27ra
 - Kokapena: Guggenheim Bilbao Museoko hezkuntza-gunea
 - Babeslea: BBK
-
- Euskal Herriko sei ikastetxe publiko eta itundutako sei eta hamabi urte bitarteko 126 eskola-umek freskotasunez eta naturaltasunez betetako lanak egin dituzte, eta Museoko hezkuntza gunean jarriko dira ikusgai.
 - *Thomas Struth, Kunsthalle Bremen bildumako maisulanak: Delacroixetik Beckmannera eta Jesse Jones. Dar-dar* erakusketak izan dira inspirazio-iturri hezkuntza-programa berritzaile honetan parte hartu dutenentzat. Dagoeneko 3.400 umek hartu dute parte programan, 1998an martxan jarri zenetik.
 - *Artea ikasbide* programak eskola-umeen imajinazioa sustatzen du, eta haien jakin-mina pizten, eta egokia da esperimintatzeko eta, aldi berean, eskola-curriculumeko ikasgaiak indartzeko.

Aurten *Artea ikasbide* programan parte hartu duten artista txikiak imajinazioz beteriko lan dibertigarri ugari egin dituzte, hala nola giza gorputza irudikatzen duen hiru dimentsioko mapa handi bat; mendiak irudikatuta dauzkaten horma-irudi erraldoiak; hiru dimentsioko pertsonaia bat, buztinez egina, globo aerostatiko batean bidaiatzeko sortua; *pixilation* teknika erabiliz egindako filmak; eta forma geometrikoko hezurdurak.

Maider Lópezek, aurtengo edizioan parte hartu duten 7 artistetako batek, honela hitz egin du Erretereriako Bizarain ikastetxean egindako lanari buruz: «Gure gorputzekin, mendien formak eta inguruko harriak irudikatzen saiatu gara. Paisaia gure gorputzen bidez esperimintatu dugu, eta ikasgelako egunerokotasuna aldatu. Dinamika horietan, lankidetzak eta koordinazioa bultzatu behar dira, eta elkarrekin egin behar da lan, gure gorputzekin paisaia berriak sortzeko.»

Programari amaiera emanez antolatu den erakusketak BBK-ren babesa du, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren laguntza. «Une ezin hobea da arte garaikidea eskola-umeengana zabaltzeko, gure ustez nahiko berritzailea den metodo baten bidez: ikasgelan landu ohi dituzten ikasgaiekin egin duten lana». Horrela laburtu du BBK-ko zuzendari nagusi Gorka Martínezek programan bizi izandakoa.

Aurten, ekainaren 26tik irailaren 27ra izango da erakusketa Museoko hezkuntza gunean.

Elssie Ansareo, Iñaki Gracenea, Maider López, Manu Muniategiandikoetxea, Ibon Sáenz de Olazagoitia, Jorge Rubio eta Manu Uranga artistek, Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza eta Interpretazioko Zuzendariordetzarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sei ikastetxetako irakasleekin elkarlanean,

diseinatu eta dinamizatu dituzte ikasturtean zehar egin diren tailerrak. 20 saio egin dituzte, eta hamar sorkuntza-proposamen baino gehiago prestatu.

Helburua da haurrek inprobisatzea, aurkitzea, esperimentatzea, ikusten dutena zalantzan jartzea, jolastea, huts egitea eta errealtatea bitarteko artistikoen bidez ulertzea; esaterako, pintura, eskultura, bideoa eta performancea. «Proiektuaren funtsezko kontzeptuetako bat izan da ikerketak, eguneroko lanak eta ikasketa lanak bidea egiten dutela pixkanaka, edo, hobeto esanda, bidea direla. Prozesua baita garrantzizkoena. Eta akatsa, etengabeko ikaskuntza prozesu horren beste elementu bat. Ez dago akatsik gabeko lan-prozesurik, esperimentazio-prozesurik. Oso garrantzitsua da, ez jakitea naturalizatzen duelako, artistak ez baitu zertan jakin. Baina bidea horrela egiten dela, zalantzekin eta jakin gabe, ikertuz eta probatuz». Manu Muniategiandikoetxeak hitz hauekin deskribatu du programa honetan lan egiteko modua.

Sei proiektu artistiko original, irudimenezko eta zirraragarri

Artea ikasbide erakusketan parte hartu duten 126 «artista» txikiak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

Trapagarango San Gabriel ikastetxeko 5. mailako eskola-umeek Lurraren barrualdea, mendien kartografia edo giza gorputzaren anatomia nolakoak diren ikertu zuten, natur zientziekin erlazionatutako gaiak indartzeko. Ikasgai horietako argazkiak erabili, eta Elsie Ansareoren laguntzarekin, pixilation teknika erabili zuten, eta irudi mugimendudun batzuen sekuentzia bat sortu.

Bilboko Zamakola-Juan Delmás ikastetxeko 4. mailako haurrek, Manu Muniategiandikoetxearen laguntzarekin, hiru dimentsioko collage handi bat sortu zuten, eta, bertan, giza gorputzeko eta gorputz organoak irudikatu. Bilboko hiriaren planoekin lotu zuten collagea, eta, aldi berean, giza gorputzeko sistemak eta ingurunearen ezagutzak indartu.

Bilboko Sánchez Marcos ikastetxeko 3. mailako ikasleek eguneroko bizitzan matematika erabiltzearen inguruan hausnartu zuten, eta geometria naturan, eguneroko bizitzan eta jokoetan dagoela ikusi. Iñaki Gracenearen laguntzarekin, performance bat egin zuten ikasgelako mahaiekin; taldetan banatu ziren, eta bakoitzak irudi geometriko bat sortu zuen.

Gallartako Buenos Aires ikastetxeko 1. mailako ikasleek naturari eta faunari buruz hausnartu zuten, eta mundu naturalari buruzko galderak egin ziren: Nolakoak dira liztorrak? Zer kolore ditu paisaiak? Zergatik da landare bat landare? Jorge Rubio eta Manu Uranga artisten laguntzarekin, horma-irudi batzuk egin zituzten, eta, haietan, paisaia desberdinak eta paisaia horietan bizi diren animaliak margotu zituzten.

Gasteizko Samaniego ikastetxeko 3. mailako ikasleek asmo handiko proiektu bat jarri zuten martxan; amaieran, globo aerostatiko bat aireratu zuten ikastetxeko jolastokitik estratosferara. Ibilbide espazialaren historia aztertu zuten, baita ilargirako bidaien lehenengo fikzioak ere, Julio Vernetik Tintinera. Inspirazio-iturri horretatik abiatuta, ikasleek globo aerostatikoan joango zen pertsonaia sortu zuten; buztinez eginda zegoen, hiru dimentsiotan. Ibon Sáenz de Olazagoitiak, eskola-ume horiei lagundu zien artistak, honela

azaldu zuen haiekin bizi izandakoa: «Samaniego ikastetxera heltzean, kultur anitzeko talde bat aurkitu nuen, oso gaztea, geldiezina harkorra eta esperimentatzera irekia. Proiektuaren ideia argia zen hasiera-hasieratik. Ikastetxea proiektu "espaziala" taldean garatzeko lanetan murgilduta zegoen, eta zeregin berezia esleitu zigun: Noski –horrela deitzen da bidaia maskota–, abentura estratosferiko baterako jantzi eksklusibo batekin hornitzea».

Errenteriako Bizarain ikastetxeko 4. mailako eskola-umeek Aiako Harria ikusten dute ikastetxetik. Maider López artistak hari ikuspegi desberdinetatik begiratzeko eskatu zien, eta, elkarrekin, horma-irudi handiak sortu zituzten, mendien silueta marraztuta. Horrela, eskala eta ingurunea landu zituzten, eta, aldi berean, proiektuak aurrera eramateko lankidetzeta eta bizikidetzeta zeinen garrantzitsuak diren ikasi.

Bilbo-New York trukea

Trapagarango San Gabriel ikastetxeko 5. mailako ikasleek eta Staten Islandeko (New York) Public School 48 ikastetxeko 3. mailakoek, Elsie Ansareo eta Jeff Hopkins artisten laguntzarekin, mezu elektronikoak bidali dizkiete elkarri sei astez, ingurune bakoitzaren ezaugarriei eta alderdi komunei buruzko informazioa trukatzeko. Testu-mezu, irudi, marrazki eta argazkien bidez partekatu dituzte proiektu artistikoak.

1999tik, *Artea ikasbide* programak arte-hezkuntzaren bidez Euskal Herriko eta New Yorkeko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean kultura trukatzeko aukera eman die eskola-umeei, artistei eta irakasleei. Truke hori ez da artistikoa soilik, eskola-umeek beste gauza asko partekatzen baitituzte bertan: kezkak, gustuko gauzak, jolasak eta inguruan duten errealitateko beste edozein alderdi esanguratsu. Talde bakoitzak jakin-min handia izan zuen inguruaren ezaugarriak ezagutzeko eta bi hirietako Guggenheim museoak alderatzeko.

***Artea ikasbide* 23 urtez**

Artea ikasbide programak 23 urte bete ditu, eta poz handiz gainera, Lehen Hezkuntzako 3.400 eskola-ume baino gehiagoren eskola-curriculumak indartzen lagundu baitu jarduera artistikoen bidez, eta, aldi berean, munduari ikuspegi kreatibo eta pertsonal batetik so egiten erakutsi baitie, hainbat balio indartuz, hala nola talde-lana, beste kultura batzuekiko bizikidetzeta eta ingurumenarekiko errespetua.

Hiru hizkuntza-ereduetako eta Euskal Herri osoko 154 ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 3.346 eskola-umek, 32 artistak eta 238 irakaslek aktiboki hartu dute parte programan 1998tik, Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileekin batera.

Duela 23 urte martxan jarri zen arren Guggenheim Bilbao Museoa, garbi dago *Artea ikasbide* programak oraindik ahalmen handia duela artearen bidez eskola-curriculumak hobetzeko. Hezkuntza-programa hori New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum museoan sortu zen. 1970ean, Natalie K. Lieberman mezenasak ezarri zuen, hiriko Lehen Hezkuntzako eskola publikoetan artea irakasteari utz ez ziezaioten.

Azaleko irudia:

Zamakola. Juan Delmás ikastetxeko ikasleek egindako lana

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia ikusteko, joan hona: www.guggenheim-bilbao.eus
(Prensa-eremua).

Prentsa irudiak:

Artea Ikasbide

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Musoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoa-ren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 359 008, edo posta elektroniko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Errenteriako Bizarain ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Pilar Sesén

Artista: Maider López



Gallartako Buenos Aires ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Ainhoa Sergio

Artistak: Manu Uranga eta Jorge Rubio



Gasteizko Samaniego ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Aitziber Altube

Artista: Ibon Sáenz de Olazagoitia



Trapagako San Gabriel ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Rakel Tabernilla

Artista: Elsie Ansareo



Bilboko Sánchez Marcos ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Leire Pérez

Artista: Iñaki Gracenea



Bilboko Zamakola-Juan Delmas ikastetxeko ikasleak

Irakaslea: Agurtzane Iturriaga

Artista: Manu Muniategiandikoetxea

